

Erabaki txikien aurrezki handia

AEBtako gobernuak 400 milioi dolar aurrezteko gai da baldin eta ameriketako administrazioaren ordenagailuetako letra aldatzen badu.

Harrigarria? Ez hainbeste, harrigarria izan daitekeena gomendapen honen preskriptoreak egindako lana da. Suvir Mirchandani, 14 urteko ikaslea, Pittsburgh-eko aldirian kokatuta zegoen eskola baten ikasten zuen eta bere eskolak papera eta tinta aurrezteko moduak aztertu zituen. Ikerketa honek bere ikastetxeari urtero 21.000 dolar aurreztea baimendu dio.

Baina Mirchandani bere ikerketa hurrengo urrats batera eraman zuen. Bulego federal desberdinetako dokumentuak oinarri izanik tipografia erabilienak Times New Roman, Gothic Century eta Garamond zirela ikusi zuen, ondoren tipografia bakoitzak erabiltzen duen tinta kantitatea kalkulatu zuen. Programa informatiko baten bitartez 3 tipografiak aldatzea posible izan eta tipografia hauen portaera inpresio parametroen eta tinta mailen arabera aztertu ondoren egokiena Garamond zela erabaki zuen 12ko neurriarekin.

Mirchandaniaren ikerketaren arabera Etxe Zuriak dokumentu guztiak letra mota horrekin inprimatuko balitu batezbeste US\$234 milioi aurreztuko lituzke, US\$62 milioi kasurik txarrean eta US\$394 milioi kasurik onenean.

Garamond letra tipoa zaharretarikoa da Claude Garamond-ek diseinatu zuen, 1490-1561 urte bitartean bizi izan zen editore frantziarrak.

Baina aurrezki handiagoa izan zitekeen ikasketak tinta baino ez duelako kontuan hartzen. Batez beste mozkin batzuk paperaren aurrezki eta ingurugiroan duen inpaktu txikiagoa adibiderako.

Mirchandaniaren hitzetan "Tinta, frantes lurrina baino bi aldiz garestiagoa da" Chaneleko lurrinak 38 dolarretako salneurria duen bitartean parekidea litzatekeen Hewlett-Packard-eko inpresorarako tintak 75 dolarretako prezioa du.

Azken urteetan inprimaketa gastuak murriztuz joan badira ere, altuak izaten jarraitzen dute eta letra tipo aldaketa txiki batek aurrezki monetario esanguratsuak ekar ditzake.

Estatu Batuetako Inprimaketa Bulegoa gomendapen hau aztertzen ari da. Eta zure saltokiak? Zertan aurrezki dezakezun aztertzen ari zara?

Gaur egun, kontsumo energetikoaren aurrezki kontuan izan beharreko gaia da eta eremu honetan kostuak txikitzea posible da.

Saltoki txikien batezbesteko kontsumoa 250 kWh/m²-koa da, hala ere zenbateko honetan negozio motak eragin handia du, adibidez elikadura saltokien kontsumoa handiagoa da hotz-ekipamenduak erabiltzen dituztelako. Kontsumo elektrikoa ondorengo parametroen arabera banatzen da:

- Argiztapena: %50
- Aire egokitua eta berogailua bero bonbaren bitartez: %35
- Besteak: %15

Aurrezkirako estrategiak ondokoak izan beharko ditu ardatz:

- Kontratatura daukagun potentzia berrikusi eta negozioaren behar errealak egokitzen dela egiaztatu.
- Eraginkorrak diren ekipoengaitik ordezkatu: lanparak, luminiariak eta equipo laguntzailea.
- Argi naturalaren aprobetxamendua.
- Hornikuntza maila eta ordu regularizaziorako kontrol sistemak ezarri.
- Argiztapenaren mantenu eta garbiketa plana.
- Eskari energetikoa txikitu inguratzailerik termikoa moldatuz: fatxadak, leihoak, zubi termikoak, zoruak, hegalek eta barruko zatidurak.
- Termostatoak saltoki barruko tenperatura egokirako doitu.
- Free-cooling: Kanpoko airearen hozteko gaitasuna lokalaren barrualdea hozteko erabili.

Kostuak murriztuko dituzten neurri guztiak zuen saltokiko emaitzen kontuan lagunduko dute, beraz, has zaitezte zenbakiak egiten...